

ELKARRIZKETA  
SOZIALERAKO MAHAIA  
MESA DE  
DIÁLOGO SOCIAL

## ERABAKIA, PARTE-HARTZE INSTITUZIONALARI BURUZKO ETORKIZUNEKO

### LEGEAREN OINARRIEI BURUZKOA

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 14an, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaia bildu da, Eusko Jaurlearitzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeen parte-hartzearekin, eta honako hau

#### ADIERAZTEN DUTE:


#### SARRERA

-I-

Gizarte demokratikoez izandako aurrerapen handienetako bat izan da behar diren bideak ezartzea herritarrek elkarrizketa sozialaren bidez gai publikoei buruzko erabakiak hartzen parte hartzen dutela bermatzeko. Testuinguru horretan, nazioarteko hainbat formula antolatu dira, gizarte-eragileek parte har dezaten lan-merkatuarekin zuzenean edo zeharka lotutako politika publikoak diseinatzen, berezkoak dituzten interes ekonomiko eta sozialak defendatu eta sustatzeko.

Lanaren Nazioarteko Erakundearentzat, honela definitzen da hiru alderdikotasuna: «gobernuaren, enplegatzaileen eta langileen arteko interakzioa (haien ordezkarien bidez) bazkide berdinean eta independente gisa, interes komuneko gaiei konponbideak bilatzeko». Alderdi interesdunen artean adostutako xedapenen arabera kontsultatzeko, negoziatzeko eta baterako erabakiak hartzeko erakundeak, mekanismoak eta prozesuak dira, eta politika sozialak, ekonomikoak eta lanekoak formulatzen eta gauzatzen laguntzea eta lantokiari edo enplegatzaileen zein langileen interesei eragiten dieten erabaki guztietan aplikatzea dute xede.

Bestalde, Europar Batasuna esplizituki indartzen ari da gizarte-solaskideek —sindikatuak eta enpresa-erakundeak— duten funtsezko eginkizuna politika publikoen diseinuan, aplikazioan eta jarraipenean, bereziki enpleguaren, lan-merkatuaren eta gizarte-kohezioaren eremuetan. Ikuspegi hori, gaur egun, tresna berri eta zehatzetan oinarrituta egituratzen da; horien artean dago Elkarrizketa Sozialaren aldeko Europako Ituna, Europako Batzordeak eta Europako gizarte-solaskideek 2025eko martxoaren 5ean sinatua, zeina egungo arau-esparruek eta esparru politikoek babesten baitute (esaterako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 153. eta 154. artikulua), bai eta EBn elkarrizketa soziala indartzeko xedez Kontseiluak aurretiaz egindako gomendioek ere (hala nola Kontseiluaren 2023ko ekainaren 12ko Gomendioa).



Erabaki, arau eta akordio multzo horrek erakusten du Batzordeak eta Europako Kontseiluak goimailako konpromiso politikoa dutela sindikatuak eta patronalak eragile estrateragiko eta jarraituak izan daitezten Europako politika publikoak egiteko orduan, elkarrizketa formal hutsetik harago; eta, gainera, Gizarte Eskubideen Europako Zutabearen 8. printzipioan kokatzen da, zeinak aitortzen baitu gizarte-solaskideek eskubidea dutela ekonomia-, lan- eta gizarte-politiken diseinuan eta aplikazioan kontsultatuak izateko, eta zeinak elkarrizketa sozialaren eta negoziazio kolektiboaren sustapena azpimarratzen baitu Europako gizarte-ereduaren funtsezko elementutzat.

Estatuan, konstituzio-arauak eginkizun garrantzitsua ematen die sindikatu- eta enpresa-erakundeei parte-hartze instituzionalean. Ondorio horretara daramate zenbait manuk; esate baterako, 7. artikulua, zeinetan ezartzen baita langileen sindikatuak eta enpresa-elkartek beren interes ekonomiko eta sozialak babesten eta sustatzen laguntzen dutela; 9.2 artikulua, non adierazten baita herritarren parte-hartzea sustatu behar dela bizitza publikoan, politikoan, ekonomikoan eta sozialean; eta 129.1 artikulua, non interesdunek erakunde publikoen jardueran duten parte-hartzea arautzen baita, parte-hartze instituzional gisa.

Ildo beretik, Gernikako Estatutuak 9. artikuluan ezartzen duenez, herri-aginteeak, beren funtzionatzeko moduan eta dagozkien eskumenen esparruan, Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien parte-hartzea bideratuko dute.

-II-

Gernikako Estatutua indarrean jarri zenetik, gizarte-eragileek sektore publikoko kudeaketa-organo eta -egitura jakin batzuetan duten parte-hartzea eta presentzia indartuz joan da, eta gaur egun errealitate sendo eta eztaba daezina bihurtu da. Haren bidez gauzatzen eta bideratzen da, Estatu sozial eta demokratikoaren zutabeetako bat diren aldetik, Konstituzioak Atariko Tituluan langileen eta enpresaburuen interes orokorrak ordezkatzeko eta defendatzeko sindikatuak eta enpresa-erakundeei esleitzen dizkien eskumenen eta eskudantzien zati garrantzitsu bat; hain zuzen ere, 7. artikulua araberak, beraiei dagozkien interesak.

Printzipio hori garatzeko, gizarte-eragileak progresiboki erakunde publiko batzuetan sartu dira, erakunde horiek sortu ahala, eta formula eta konfigurazio askotariko bidez, haien kudeaketa-, kontsulta- edo aholkularitza-organoen parte izatera igaro dira.

Nolanahi ere, prozesu hori denboran zehar modu sakabanatuan eta jarraipenik gabe gauzatu da, behar den koherentzia emango dion esparru orokorrik gabe. Ondorioz, oso egoera desberdinak sortu dira, eta komeni da kontzeptualki eta legalki bereiztea eta antolatzea.



Horregatik, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko gizarte-eragileon iritziz, egokia da Euskadiko eragileen parte-hartze instituzionala eta elkarrizketa soziala behin betiko egituratzea ahalbidetuko duten funtsezko elementuei buruzko jarrera partekatu bat adostea, Parte-hartze Institutuzionalari eta Elkarrizketa Sozialari buruzko Lege baten bidez, zeinak printzipio hauek izango dituen ardatz:

### **ETORKIZUNeko ARAUA ERATZEN DUTEN PRINTZIPIOAK:**

#### **LEHENENGO OINARRIA.- ARAUAREN EGOKITASUNARI ETA HELBURUARI BURUZ: BERE BALIO INSTITUZIONAL BEREZIA AITORTU BEHARRA.**


Elkarrizketa eta parte-hartze soziala funtsezko faktoreak dira gizarte-kohesiorako, aurrerabide ekonomikorako eta EAEko sistema sozioekonomikoaren lehiakortasuna hobetzeko. Gogoeta horretatik abiatuta, parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko etorkizuneko legearen funtsezko eta berariazko helburua izan behar da ordezkari-tza instituzionala eta elkarrizketa soziala gauzatzeko esparru komun bat eratzea, hura indartzen eta behar bezala garatzen laguntzeko. Ondorioz, arau hori ez da sortu behar irauteko asmo hutsarekin, baizik eta EAEko erakunde-arkitekturan eragiteko berariazko antolamendu-helburuarekin. Azken batean, bere balio instituzional berezia aitortu beharko litzateke, eta, hortik eratorrita, gizarte-eragileek erakunde publikoetan parte hartzea eta esku hartzea aurreikusten duten ondorengo beste arau-xedapenak sortzeko edo garatzeko, haien maila hierarkikoa edozein dela ere, aipatutako parte-hartze instituzionalari eta kontzertazio sozialari buruzko legeak ezartzen dituen oinarriko printzipio eta irizpideak bete beharko dira.

Neurri berean, eta arrazoi berberengatik, horrelako lege batek lehendik zeuden arauen berrikuspenera ere antolatu/gidatu beharko luke, hala badagokio, bere aurreikuspenetara egokitu daitezen, eta, hala, ezaugarri eta printzipio komun eta koherenteak eman diezazkien parte-hartze instituzionaleko esperientzia guztiei, eredu propio bat identifikatze aldera.

#### **BIGARREN OINARRIA.- PARTE-HARTZE INSTITUZIONALEAN LEGITIMATUTAKO SUBJEKTUEI BURUZ: ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK.**

Parte-hartze instituzionala eta elkarrizketa soziala arautzeko funtsezko elementuetako bat da definitzea zein subjektuk gauzatu eta hartu behar duten beren gain parte-hartze hori, errealitate eta adierazpen guztietan.

Badira langile eta enpresaburu guztiei zeharka eragiten dieten gaiak. Kasu horietan, batzuen zein besteen interes generikoak instituzionalki ordezkatzeko dituztenek hartzen dute parte, eta, nagusiki, gai horiek kudeatzen dituzten erakunde publikoetan soilik ordezkari-tza handiena duten sindikatu- eta enpresa-eragileak sartuta kudeatu da. «Ordezkari-tza handienaren» kontzeptu



hori, ordezkari-tza-funtzio instituzionalizatu bat sindikatu eta enpresa-erakunde jakin batzuei esleitzeko elementu bereizgarri eta erabakigarri gisa, aipatutako konstituzio-adierazpenean oinarritzen da, baina, orobat, sostengu eta babes esplizitua du konstituzionaltasun-multzoa osatzen duten legeetan ere, hala nola askatasun sindikalaren lege organikoan eta, zentzu zabalean, Langileen Estatutuaren seigarren xedapen gehigarrian bertan.


Bestalde, ordezkari-tza instituzionalizatuaren printzipio hori pixkanaka garatzearekin batera (horrek azaltzen du zenbait organismo eta erakunde publikotan ordezkari-tza handieneko gizarte-eragileak egotea), prozesu osagarri bat ere gertatu da, zeinak de facto, baina hausnarketa espezifikorik eta behar duen estaldura emango dion arau orokorrik gabe, zabaldu egin duen parte-hartze instituzionalaren kontzeptua. Hain zuzen ere, autoantolaketa printzipioa betez eta sortzeko edo garatzeko arau juridikoen erabakiz, gero eta organismo eta erakunde gehiagok integratu dituzte beren baitan beste eragile zibil, ekonomiko eta sozial batzuk, zeinak politika publiko sektorial jakin batzuen eraginpean dauden talde edo kolektiboaren interes espezifikoak ordezkatzeko eta defendatzeko dituzten. Batzuetan, ordezkari-tza handiena duten gizarte-eragileekin partekatzen dute presentzia hori, eta beste batzuetan, eksklusiboki aritzen dira.

Parte-hartze instituzionalari eta kontzertazio sozialari buruzko etorkizuneko legeak askotariko errealitate horri aurre egin beharko dio, eta bere erronketako bat izango da kasu bakoitzean ordezkari-tza-funtzioaren oinarria eta irismena argi eta garbi azaltzen duten printzipio komunen arabera antolatzea, funtzio hori bere gain hartu eta bere errealitate edo adierazpenetan gauzatu behar duten subjektuak definitzeko erabili beharreko irizpideak ezarriz.

Batzuen eta besteen parte-hartzea zehazten duen bereizketaren ardatza («ordezkari-tza handieneko» eragileak edo eragile sektorialak) gaietan oinarritu behar da, baina ez dirudi metodo egokia, ezta funtzionala ere, eragileen zerrenda itxi bat sartzea eta eragileok maila bati edo besteari esleitzea. Are gutxiago gizarte-eragileek eremu publikoan parte hartzeko esparru orokor eta egonkor bat sortzeko asmoz sortutako lege batean. Aitzitik, komeni da arau abstraktuak edo irizpide generikoak ezartzea, testua errealitate aldakor eta dinamiko batera egokitu ahal izateko, gero eta garrantzi handiagoa baitu ekintza administratibo eta politikoaren garapenean.

Azaldutakoaren arabera, gure iritziz, aipatutako legeak bi ordezkari-tza-maila horien (alegia, «ordezkari-tza handienekoa» edo sektoriala) artean dauden desberdintasun kontzeptualak eta praktikoak finkatu beharko lituzke, eta horrek dakartzan ondorioak ezarri, parte-hartze instituzionala esparru koherente batera egokitu dadin eta irizpide komun batzuei erantzun diezaien.

Nolanahi ere, EAEko parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko lehen lege berri horrek oinarritzeko bi printzipio hartu eta bermatu beharko lituzke juridikoki. Lehenengoa: enpresaburuen eta langileen interes orokorreari eragiten dieten zeharkako izaerako eta irismeneko politika publikoak kudeatzen dituzten organismo eta erakunde guztietan esku hartzea eta presentzia izatea EAEn ordezkari-tza handiena duten gizarte-eragileei soilik dagokie,



ez beste inori. Bigarrena: langileen eta enpresaburuen interes espezifikoiei eragiten dieten politika sektorialak kudeatzen dituzten beste organismo eta erakunde batzuetan ere bermatu egin behar da haien presentzia, nahiz eta, kasu honetan, sektorea ordezkatzan duten beste eragile batzuekin batera egin daitekeen hori.

#### **HIRUGARREN OINARRIA.- PARTE-HARTZE INSTITUZIONALAREN EDUKIEI ETA PROZEDUREI BURUZ.**

Aurreko guztiaren beharrezko osagarri gisa, lege horrek eredu bat diseinatu beharko luke, behar besteko bermeak dituen bere iraunkortasun, indar eta finkapenari dagokionez, eta sistema objektibo eta garden bat ezarriz, zeinak parte-hartze instituzionalaren eskubideak, betebeharrak, legitimazioa eta prozedura zehaztuko dituen. Eskubide horien artean, gutxienez, honako hauek aurreikusi beharko dira:

- Lege-aurreproiektuak edo lege-arauak garatzeko erregelamendu-arauen proiektuak ezagutzea.
- Lantzen diren sektoreko eta sektorearteko neurriei eta planei buruzko informazioa jasotzea, ekimen horiei ekarpenak egin eta aldaketak proposatu ahal izateko.
- Jarduketaren irizpide, gidalerro eta ildo nagusiak prestatzean, jarraipena, balorazioa eta ebaluazioa proposatzea.
- Parte hartzeko prozesuetan sartu beharreko gaiak eta ekintzak proposatzea.

#### **LAUGARREN OINARRIA.- ITUN SOZIALARI BURUZ: ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIAREN INSTITUZIONALIZAZIO LEGALA.**

Parte-hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko EAEko lege baten laugarren helburua da beste errealitate bat integratzea, normalizatzea eta finkatzea; izan ere, errealitate horrek, zeharka lotuta badago ere, ezaugarri espezifikoak eta bereizgarriak ditu. Hain zuzen ere, hiru alderdiko elkarrizketa soziala da, EAEko arau juridikoen eta politika publikoen edukia progresiboki bateratzeko tresna.

Ituntzea urrats kualitatiboa da parte-hartze instituzional hutsaren aldean; izan ere, gobernuaren ekintza bideratzen duten arau-erabakien eta jarraibide politikoen betearazpenean eta kudeaketan eragiteaz gain, horretarako eskumena duten administrazio-egituren bidez, aktiboki esku hartu nahi du batzuen zein besteen ideia gintza-, sortze- eta definizio-prozesuan bertan.

Ordezkaritza handieneko enpresaburu- eta sindikatu-erakundeei dagozkien eginkizunen barruan, erakunde horiek lan proaktiboa egin ahal izango dute, eta jorratu beharreko gaiak edo garatu beharreko ekintzak proposatu ahal izango dituzte. Nolanahi ere, itunak ez du inola ere esan nahi eskumen publikoen egikaritzari kalterik egiten zaionik, eskumenok ukaezinak baitira, eta, orobat, itunak ez du ekintza politikoa baldintzatzen, zeina ezin baita inola ere gizarte-

---

*Etorkizuneko Partaidetza Instituzionalari buruzko euskal Legearen oinarriari buruzko akordioa*



eragileekin alde zuzenetik akordio bat izatearen mende geratu. Helburu erabat demokratiko baten gauzatze formala baino ez da, gobernuaren ekintzaren edukia ahal den neurrian adosteko hark zuzenean edo zeharka eragingo dien pertsonen interesak ordezkatzeko dituzten eragileekin. Ikuspegi horretatik, ituna, berez izaera politikoa eta zeharkako irismena duenez, ordezkari handiena duten gizarte-eragileekiko elkarrizketa etengabea eta instituzionalizatua soilik oinarritu daiteke.


Hiru alderdiko elkarrizketa sozialaren esperientzia, EAEn, oraintsuko errealitate bat da, prozesu bizi eta dinamikoa, oso emankorra mahai orokorraren eta hura sortu zenetik eratutako lantaldeen bidez egindako lanari dagokionez, eta arrakastatsua ere bai emaitzei dagokienez. 2019. urte hasieran onartutako dekretu batean du gaur egungo estaldura juridikoa. Igarotako denborak eta, batez ere, orain arte lortutako emaitzek sobera justifikatzen dute hiru alderdiko elkarrizketa horri, eduki eta irismen orokorreko lege baten bidez, erakunde-egonkortasuna emateko ekimena.

Arau horrek, a priori, ez luke asmorik izan behar gaur egun hiruko elkarrizketa sozialari eusten dion eta elkarrizketa hori bideratzen duen mahaiaren euskarri den lege-esparruaren alderdi materialak edo substantiboak aldatzeko. 3/2019 Dekretutik abiatuta diseinatutako ereduak nahiko ondo funtzionatu du, eta, beraz, bere horretan eutsi beharko litzaioke, funtsezko alderdiei dagokienez behintzat. Legeak ekarriko lukeena da hiruko elkarrizketaren estaldura juridikoa ematen dion arauaren maila formala igotzea, eta, hala, argi berrestea protagonisten borondate komuna: hiruko elkarrizketa EAeko erakunde-sarean behin betiko sartzea, gobernu-ekintzaren kalitate demokratikoaren eta gardentasunaren ezaugarri edo ikur gisa. Elkarrizketa sozialaren egonkortasunerako eta iraupenerako bokazio hori islatu egin beharko litzateke etorkizuneko lege horretan, eta behar diren bitarteko eta baliabideez hornitu, elkarrizketa horren euskarri eraginkorra izan dadin.

Alde horretatik, gure iritziz, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren funtsezko eginkizuna izaten jarraitu behar du gizarte-, ekonomia- eta lan-arloko politika publikoen edo lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan eragiten dutenen negoziazioa eta kontzertazioa bultzatzea eta erraztea, eta, orobat, iritzia ematea Eusko Jaurlaritzaren plangintza osatzen duten plan estrategikoetako eta sailtako planetako alderdiei buruz, bai eta urteko lan-planen zehazten dituen lege-proiektuei eta erregelamendu-arauei buruz ere.

Era berean, irizpide edo printzipio orokorrak finkatzen jarraituko du, eragindako arloen politika sektorialak eta jarduketan planak definitzean kontuan har daitezkeen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko organo eskudunei bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio guztia eskatu eta jasoko du.

Nolanahi ere, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren gaiak, lanak eta zereginak aldian-aldian planifikatuko dira, kideen artean adostuta.



### **BOSGARREN OINARRIA.- PARTE-HARTZEAREN AURREKONTU-AINTZATESPENA.**

Ordezkaritza handiena duten sindikatu- eta enpresa-erakundeek elkarrizketa-prozesuetan eta parte-hartze instituzionala egituratzen duten organo asko eta askotan (oso izaera desberdinekoak) duten presentziak agerian uzten du erakunde horiek indartu egin behar direla, baliabide eta bitarteko nahikoa emanez, haien ekarpena benetan posible izan dadin eta parte-hartze eraginkorra izan dezaten, eta hori finantzaketa propioa duten organismoetan gertatzen den bezala egin dadin. Ondorioz, esleituta duten helburua betetzeari lotuta, beharrezkotzat jotzen da elkarrizketa sozial instituzionalizatua eta parte-hartze instituzionala (dagoeneko berariaz aurreikusita ez dagoenean) dagokien urteko aurrekontu-esleipenarekin jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuan.


Baliabide horiek egonkorrak eta aldizkakoak izan beharko lukete, eta ez lirateke konpentsatu, gutxitu edo ordeztu beharko aipatutako erakundeak organo jakin batzuetan parte hartzeagatik jasotzen ari diren edo beste kontzeptu batzuegatik jasotzea aurreikusten duten beste finantzaketa batzuk direla-eta.

### **SEIGARREN OINARRIA.- EZ PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAREN ONDORIOAK.**

Abiapuntutzat harturik parte-hartze instituzionala eta elkarrizketa soziala, eskubide ez ezik, bertan parte hartzen duten eragileen erantzukizuna betetzeko modua ere badela, legeak arautu egin beharko lituzke Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariitza handiena duten sindikatu- eta enpresa-erakundeetako batek kide anitzeko zuzendaritza-organoetan, aholkularitzan, kontsultan, parte-hartzean eta itunetan benetan ez parte hartzearen ondorioak. Hala, arauak ordezkatzeko modu desberdinak jasoko lituzke, gizarte-eragileren batek modu eraginkorrean parte hartzen ez badu edo izendatzeko eskubideari uko egiten badio, ordezkariitza txikiena duen alderdiaren esku hartzeko gaitasunak kalterik izan ez dezan.

### **ZAZPIGARRENA OINARRIA.- ARAUTIK KANPO GERATZEA.**

Nolanahi ere, gure ustez, duten izaeragatik beragatik, etorkizuneko arau horren xedetik kanpo geratu beharko lirateke gizarte-eragileen arteko elkarrizketa zuzena bideratzeko eta, bereziki, negozioazio kolektiboko prozesuei laguntzeko sortutako egungo egitura guztiak, uste baitugu bi alderdiko elkarrizketa horrek berezko bideak dituela, hiru alderdiko elkarrizketatik eta parte-hartze instituzionaletik bereizita, erabat osagarria bada ere. Zalantzarik gabe, elkarrizketa sozialaren bi adierazpenak lan-harremanen eredu aurreratu eta demokratiko baten oinarritzko eta funtsezko elementuak dira, baina berezko substantibotasuna dute, eta horiek gauzatzeko laguntza-esparru eta -egitura desberdinak behar dira. Alde horretatik, lege honetatik erabat kanpo geratzen da Lan Harremanen Kontseilua. Organo horrek osaera paritarioa du, gobernutik independentea eta nortasun juridikoduna da, eta EAEn ordezkariitza handiena duten eragileen zerbitzura dago, lan-harremanen eremuan berezko dituen eginkizunak garatzeko.



Orobat, etorkizuneko lege horretatik kanpo utzi beharko litzateke Ekonomia eta Gizarte Kontseilua; izan ere, nahitaezko esku-hartzea duen eta osaera plurala duen kontsulta-organoa den aldetik, EAEko arau-jarduera osoari dagokionez gauzatzen ditu bere eginkizunak eta eskumenak, eta parte-hartze instituzionalaren kontzeptu zorrotzetik harago doan lege-esparru espezifiko baten mende dago.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko kide diren alderdiek erabaki hau sinatzen dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

**Eusko Jaurlaritzaren izenean,**

Mikel Torres Lorenzo

Mikel Jauregui Letemendia

Begoña Pedrosa Lobato

Nerea Melgosa Vega

**Confebasken izenean,**

Tamara Yagüe Martínez

**Sindikatuaren izenean,**

CCOO

UGT

---

*Etorkizuneko Partaidetza Institutuzionalari buruzko euskal Legearen oinarriari buruzko akordioa*